

**6.**

**IKASKUNTZARAKO  
OINARRIZKO TREBETASUNEN  
EBALUAZIOA**

## 6. IKASKUNTZARAKO OINARRIZKO TREBETASUNEN EBALUAZIOA

---

Haur eta nerabeen zeregin garrantzitsu bat eskolan edo hezkuntza arautuaren bidez gauzatzen da. Dudarik gabe, eskola eta ikastea da haur eta nerabeen lantegia. Eskolan arrakasta izateko oinarrizko trebetasun batzuk behar-beharrezkoak dira: hizkuntzaren bidez kultura bakoitzak urteetan pilatu duen jakinduria helarazten die haurrei. Arreta, pertzepzioa, oroimena eta abar behar-beharrezkoak dira ikasprozesuak aurrera eramateko.

Atal honetan, koadro honetan agertzen den bezala, pertzepzioa, arreta, oroimena eta hizkuntzaren inguruko trebetasunak ebaluatzeko dauden tresna batzuk aurkezten ditugu. Aipatutako prozesu horiek, askotan, zabalago diren test batzuen barruan egoten dira. Esaterako, koadroan agertzen den bezala, Wechsler-en eta Mc Carthy-ren testek eta antzeko beste batzuek prozesu guzti horiek ebaluatzen dituzte hainbat azpitemetan.

## Ikaskuntzarako oinarriko trebetasunen ebaluazioa egiteko moduak

NOLA EBALUA DAITEKE?		
GAIA	BESTE TESTEN BARRUAN	TEST BEREZIAK
<p>Pertzepzioaren ebaluazioa</p>	<p>Wechsler</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>◆ hiztegia</li> <li>◆ informazioa</li> <li>◆ aritmetika</li> <li>◆ kodigoak</li> <li>◆ osatu gabeko irudiak</li> <li>◆ irudi geometrikoen</li> <li>◆ kopia (WIPPSI)</li> <li>◆ digituak</li> </ul>	<p>Bender Thurston-en aurpegiak</p> <p>Rey-en irudi konplexuaren kopia. Hauek ebaluatzen dute:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>◆ kopiatzeko erabiltzen den estrategia</li> <li>◆ kalitatea</li> <li>◆ denbora</li> </ul>
<p>Arretaren ebaluazioa</p>		<p>Zazzo-ren ezabatze bikoitza (1948-1971) Toulouse-Pieron ezabatze-testa (1904)</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>◆ arreta</li> </ul> <p>bereizkuntza</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>◆ perzepzio-azkartasuna</li> <li>◆ lan erritmoa</li> <li>◆ nekearen aurkako</li> </ul> <p>erresistentzia</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>◆ lanaren</li> </ul> <p>aurreko jarrera</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>◆ egonkortasuna</li> </ul> <p>na</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>◆ zehaztasuna</li> </ul>
<p>Oroimenaren ebaluazioa</p>	<p>Mc Carthy:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>◆ marrazkiak oroitzea</li> <li>◆ irudi geometrikoak kopiatzea</li> <li>◆ esaldien errepikapena</li> </ul>	<p>Egitura erritmikoen oroimen-probak</p> <p>Rey-ren hitzez oroitzeko proba</p>
<p>Hizkuntzaren Inguruko trebetasunen ebaluazioa</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>◆ digituak</li> <li>◆ sekuentzia erritmikoen errepikapena</li> </ul>	<p>ITPA: <i>Illinois Test of Psycholinguistic Abilities</i> (Kirk, Mc Carthy eta Kirk, 1968)</p> <p>PLON: <i>Prueba de Lenguaje oral de Navarra</i> (Aguinaga et al., 1989)</p> <p>PPVT-R: <i>Peabody Vocabulary Test</i> (Dunn eta Dunn, 1981).</p>

Baina badira beste test batzuk prozesu horiek ebaluatzeko propio eratuak, eta horiek izango dira atal honen gaia. Hemen ikusiko ditugun testak azken zutabeen agertzen diren test bereziak dira: pertzepzioaren ebaluazioa egiteko Thurston-en, Rey-ren eta Bender-en testak; arreta ebaluatzeko ezabatze testak, eta hizkuntza ebaluatzeko ITPA testak (*Illinois Test of Psycholinguistic Abilities*, Kirk, Mc Carthy eta Kirk, 1968), PLON testak (*Prueba de Lenguaje oral de Navarra*, Aguinaga et al., 1989) eta PPVT-R testak (*Peabody Vocabulary Test*, Dunn eta Dunn, 1981).

Bukatzeko, gaiarekin lotuta dagoen ikasteko ohituren ebaluazioa aurkezten dugu.

## **PERTZEPZIOAREN EBALUAZIOA**

Oso zaila da arreta eta pertzepzioa bereiztea, ebaluazioan bereziki, elkarri lotuta dauden prozesuak direlako. Beraz, bereizketa askotan mantendu ez daitekeen konbentzio bat da.

### **Lauretta Bender-en *Ikusmen-motrizitaterako test gestaltikoa* (1938-1984)**

Lauretta Bender-en *Ikusmen-motrizitaterako test gestaltikoa* ikusmenaren eta motrizitatearen integrazioa eta koordinazioa ebaluatzen ditu. Bederatzi txartel aurkezten zaizkio subjektuari, bakoitza 10x15 zentimetrokoa. Irudiak bata bestearen atzean aurkezten dira. Subjektuak orri batean errepikatu behar ditu. Denbora-mugarik ez du proba honek, baina denbora markatu behar da, garrantzia baitu.

Bakarka ala taldeka pasa daiteke proba.

**Puntuazioa.** Hainbat sistema daude; Koppitz-ena da 5 urtetik 10 urtera gehien erabiltzen dena. Taula honetan Koppitz-en ebaluazio-sistema agertzen da.

## **BENDER-KOPPITZ PUNTUAZIO-SISTEMA (1964-1975)**

30 akats balioztatzen dira, lau taldetan bilduta:

### **1. Formaren distortsioa**

- a) Irudi oso deformatuak, gaizki eginak  
puntuen ordeztuak, zirkuluak edo marrak  
bihurguneak barik, angeluak  
bihurguneak edo angeluak ahaztea edo egitea

- b) Irudien zatien arteko proportzio eza

Akats hau A, 1., 2., 3., 4., 5. eta 8. irudietan puntuatzen da.

### **2. Biratzea**

Kopiatu den irudiak, edo haren parteetako batek, 45°-ko edo gehiagoko biraketa duela adierazten du, edo irudia kopiatzeko eredu biratu egin dela, nahiz eta gero egoki kopiatu.

Akats hau A, 1., 2., 3., 4., 5., eta 8. irudietan puntuatzen da.

### **3. Integrazioa**

Integrazio urria gertatzen denean:

- a) Irudi bateko bi parteak ongi uztarturik ez daudenean, 3 mm-tik gorako tartea uzten delako, edo bata bestearen gainean jartzen direlako (A, 4. eta 7. irudietan)
- b) Marrak ez dira gurutzatzen, edo alde batean gurutzatzen dira (6. irudian)
- d) Puntu edo zirkulu ilara gehiago edo gutxiago egitea, edo forma orokorra galtzea (2., 3. eta 5. irudietan).

### **4. Pertseberazioa**

Irudi baten gehiegizko jarraipena (sei bihurgune oso edo gehiago edozein norabidetan 6. irudian).

Ale gehiegi jarri marrazkian (15 puntu baino gehiago 1 irudian; 14 zirkulu-zutabe baino gehiago 2. irudian).

### **Adierazle emozionalak**

Adierazle emozionalek arazo emozionalak dauzkaten haurrak bereizten dituzte. Ez daude lotuta adin edo heldutasun-maila zehatz batekin. Bender testaren protokolo batean hiru adierazle emozional, edo gehiago, agertzen badira, arazo baten adierazgarri dira.

Ondoan agertzen den koadroan, Bender testean aurki daitezken adierazle emozionalak eta haien definizioak aurkezten ditugu.

### ADIERAZLE EMOZIONALAK

<b>Adierazle emozionalak</b>	<b>Definizioa</b>
Ordenarik eza	Irudiak paperean sakabanaturik agertzen dira, inolako ordena logiko edo sekuentzialik gabe
Lerro izurrak (1. eta 2. irudietan)	Bat-bateko aldaketa bi puntuz edo zirkuluz (edo gehiagoz) osatutako lerro baten norabidean
Zirkuluen ordeztu, lerroak (2. irudian)	Ziruluen erdiak, gutxienez, 1'5 mm-ko edo gehiagoko lerroen bidez ordezturik daude
Tamainaren handitzea (1., 2. edo 3. irudietan)	Puntuak edo zirkuluak gero eta handiago egiten dira, azkenekoak hasierakoak baino 3 aldiz handiagoak izan arte
Tamaina handia	Egindako marrazkia eredu baino bi aldiz handiagoa da
Tamaina txikia	Egindako marrazkia ereduaren erdia da
Lerro fina	Marra oso fina da, zaila da irudi osoa ikustea
Gainetik pasatu zabarkeriaz edo indarrez	Irudi osoa edo zati bat gainetik pasatua dago, era konpulsibo eta zakar batean
Bigarren ahalegina	Irudiaren marrazkia bukatu baino lehen baztertu egiten da, eta bigarren saialdi bat egiten da.
Zabalkundea	Bi orri edo gehiago erabiltzen dira testa egiteko
Irudiak inguratu	Irudia kopia eta gero, marko bat marrazten da haren inguruan
Irudiak aldatu	Ereduak aldatu, gauza gehiago jarritz, irudi arraroak osatuz

## Thurston-en Aurpegien, edo ezberdintasunen pertzepzioaren, testa

### Fitxa teknikoa

**Izena:** Ezberdintasunen pertzepzioa (Aurpegiak).

**Egilea:** L.L. Thurstone.

**Moldaketa eta gaztelaniarako egokitzapena:** M.Yela.

**Aplikazioa:** bakarka eta taldeka

**Iraupena:** hiru minutu.

**Aplikazioa:** sei eta zazpi urtetik aurrera, batez ere kultura-maila baxuetan, analfabetoak barne.

**Helburua:** antzekotasunak eta diferentziak azkar eta zuzen hautemateko gaitasunaren ebaluazioa.

**Tipifikazioa:** eskolatuen (gizonen eta emakumeen) eta profesionalen (gizonen eta emakumeen) baremoak.

### Testaren deskribapena

- Bereizkuntza-probak dira berdintasunaren, antzekotasunaren edo ezberdintasunaren pertzepzioa ebaluatzen dutenak eta adimen orokorrarekin korrelazio positiboak aurkezten dituztenak.
- Ezberdintasunen pertzepzioaren edo *aurpegien probak* 60 elementu grafiko ditu, bakoitzak hiru aurpegiren marrazkiak dituena. Aurpegi horiek begi, aho, bekain eta ile bereziak daukate. Aurpegietako bi berdina dira, eta egin behar dena da **desberdina** dena ezagutu eta ezabatu.
- Material mota hau oso ondo onartzen dute adin gutxiko edo kultura-maila baxuko subjektuek, baina oso sinplea eta frustagarria izan daiteke kultura-maila altua duten helduentzat.

## **Aplikazioak**

- Proba aplikagarria da, 6 edo 7 urtetik hasita, maila guztietan, eta kultura-prestakuntza gutxi eskatzen du azalpenak ulertzeko.
- Lan administratibo, industrial eta tekniko-abstraktu askok eskatzen dute ezaugarri txikiak hautematea, objektuak diskriminatzea diferentzia txikiengatik eta, oro har, patroia ordenatuak sumatzea eta interpretatzea.
- Lan mota horietarako orientazio- eta hautaketa-lanean oso lagungarria da "aurpegi"en proba baliatzea.

## **Zuzenketa eta puntuazioa**

- Puntuazioa ondo egindako galderen kopurua da.
- Zuzenketa errazteko txantiloia zulatua erabil daiteke proba-orrian. Gainean jartzen da eta zuloetan agertzen den aurpegia markaturik edo ezabaturik badago, erantzuna zuzena da. Gorriz markatuko ditugu erantzun zuzenak.
- Ez da beharrezkoa hutsak zenbatzea.
- Puntuazio zuzen gorena 60 da.
- Puntuazio zuzena bihur daiteke puntuazio zentil edo tipiko.

### **Rey-ren Irudi konplexu baten kopiaze-testa**

1942an, André Rey-k test bat proposatu zuen: irudi geometriko konplexu bat kopiaze eta gero buruz errepikatu behar zen.

Irudiak hiru ezaugarri ditu: ez dauka esanahi argirik; eraketa grafiko errazekoa da, eta marrazkiaren egiturak analisi- eta antolakuntza-jardura bat eskatzen du.

Subjektuak objektua kopiatzen duen modua ikusita, haren *pertzepzio-jardura* balioets daiteke. Eredua kentzen diogunean egiten duen marrazkiak ematen digu haren *ikusmenezko oroimenaren* mailaren eta fidagarritasunaren berri. Horrela, pertsonaren pertzepzio-estiloa zehazki definitzen da.

Oroimen-gabeziak izan ditzaketen subjektuei testa pasatzean, ez da nahikoa irudi-eredua gogoratzean eta errepikatzean dituen zailtasunak ikustea, gure usteak egiaztatzeke; irudi-eredua buruan nola “atxikitzen” den egiaztatzeke, jasotako datuen logikari edo argitasunari erreparatuko zaio, besteak beste; horiek ez dira oroimenean atxikiko, ez badira esanahi batekin buruan jasotzen —hau da, antolakuntza definitu bat bezala erregistratzen edo gure jakintzen erlazio zehatz bat bezala buruan jasotzen ez badira—. Izan ere, esanahi hartze hori, egiturarena eta erlazioarena, gauzen baitan dago; geuk ematen diegu gauzei bizitza, hautematen ditugunean. Ikusmenaren bidez hautematea ez da, soilik, zentzumenezko kontaktu bat jasotzea; pertzepzioan (hautematean) gure ikusmen-*ohiturak* berraktibatzen ditugu; identifikatze-prozesu bat da. Bigarren zereginean (buruz erreproduzitzean), subjektuak estimuluak eraten ditu uneko ezagueretatik abiatuta; analisi-prozesu bat egiten du; bertan antzemandakoa antolatzen du, egitura definitu bat eraten duen arte.

Beraz, subjektuak ezin badu *elaboratu* bere begien aurrean aurkezten zaion estimulua, irudi inkoherente batez oroitzeko da soilik, eta ezingo du erreproduzitu. Oker jokatu genuke, irudiaz ondo ez oroitzea oroimenaren gabeziatzat joko bagenu. Subjektuak, irudia ulertu ez duenez, elaborazio ona izan ez duela gogoratuko du soilik.

Baina baliteke subjektuak irudiaren zati bakoitzari **funtzio** bat aurkitzea, eta horrela irudi osoa erreproduzitu ahalko du, xehetasunen arteko erlazioaz oroitzuz. Baina xehetasunen arteko erlazioaz oroiturik irudia gogoratu eta marraztuz gero, irudia marraztean egindako hutsak **oroimenari** egotziko genizkioke.

Proba horretan bi irudi erabiltzen dira: A irudia (5 urtetik aurrera aplikatu daitekeena) eta B irudia (sinpleago den beste irudi geometriko bat). Hori 4-7 urteko umeei zuzendua dago.

Oro har, test honetan zera ebaluatzen da:

- kopiatzeko erabiltzen den estrategia,
- buruz egiteko erabiltzen den estrategia,
- kalitatea,
- denbora.

## **A IRUDIA. Azterketa-teknika**

### 1. Ereduaren kopiazea.

A irudia, laminan agertzen den eredu, kopia beharko du subjektuak. Horizontalki aurkezten da, bukaerako erronbo txikia behera begira dagoela. Subjektuari orri zuri bat eta 5-6 koloretako arkatzak emango zaizkio. Hau esanez hasiko da proba: “Hemengo irudi hau orri zurian kopia beharko duzu. Ez du zertan kopia zehatza izan, baina beharrezkoa da proportzioei arreta egitea eta xehetasunik ez ahaztea. Ez dago presarik”.

Arkatz bat ematen zaio (gorria, adibidez) eta lanean uzten zaio (kronometroa abian jartzen dugu, diskretuki). Denbora iragan ahala arkatzez aldatzeko eskatuko zaio. Gero koloreen segidaren ordena apuntatuz, marrazkia egitean erabilitako ordena jakin ahalko dugu.

- Subjektu gehienak erdiko lauki handitik hasten dira. Horren inguruan, kanpo- eta barne-xehetasunak jartzen dituzte. Horiek jartzeko ordenak ez dauka garrantzi handirik.
- Buruz ahulak diren umeak xehetasun batetik hasten dira. Gero, zentimetroz zentimetro kopiazen jarraitzen dute. Metodologia honek akatsak izango dituzten erreproduzioak erabiltzen ditu. Proportzio orokorrak ez dira errespetatzen, eta gero eta deformazio gehiago egiten dira.
- Arkatzak aldatzea garrantzitsua da kopiazen ari den irudiaren partea bukatu eta beste batera pasatzen denean. Horrela, kopiazearen etapak ezberdindu daitezke.

## 2. Oroimena erabiliz gauzatzea

Atsedean txiki baten ostean (3 minutu baino gutxiago), probaren bigarren zatiari ekingo zaio; kopiatutako irudia oroimena erabiliz erreproduzitu beharko du. Ez dago denbora-mugarik. Kolore bat baino gehiago erabiltzeko gomendatzen da, kopiaren prozedurari antzemateko.

## 3. Kopiaren zuzenketa eta baremazioa

Pertzepzioa jakiteko modu bat da, “gnosis” bat. Aukeratutako irudia (bere osoan) objektu zehatzik ez gogoratzeko prestatu da. Ikusten dutenentzat, hainbat elementu geometrikoren batuketa da. Beraz, irudia ezin da ezagutu, hura eratzen duten formak ikusten eta hierarkizatzen dituen jarduera analitiko batekin egiten ez bada.

Osterrieth-ek definitu zituen kopiatze-estrategiak sailkatu ditugu sinpleenetik konplexuenera.

1. Irudi handiaren inguruan egindako eraikuntza. Subjektuak marrazkia hasten du erdialdeko laukitik, eta gero irudiaren beste xehetasun guztiak eransten ditu.
2. Subjektua irudi handiaren ondoko xehetasun batekin hasten da, eta bere irudiaren oinarri gisa erabiltzen du. Adibidez, diagonalak hasieran marrazten ditu, eta, gero, inguruan laukia egiten du (hori gutxitan gertatzen da).
3. Inguru orokorra. Subjektuak marrazkia irudiaren inguru osoa kopiatuz hasten du, edozein puntutatik, erdialdeko laukia ezberdindu gabe. Gero, beste xehetasun guztiak jarriko ditu barnean.

4. Xehetasunen justaposizioa. Xehetasunak banan-banan egiten hasten da; ez dago elementu nagusi gidaririk. Bukatutakoan, irudia ezagutu egiten da, eta akatsik gabe gauzatua egon daiteke.
5. Fondo nahasi batean xehetasunak gehitu: subjektuak marrazki bat egiten du, ia guztiz egituratu gabea, non ezinezkoa baita eredia ezagutzea, nahiz zenbait xehetasun ezagunak gertatzen diren.
6. Eskema ezagun batera ekarri. Subjektuak irudiari eskema ezagun baten itxura ematen dio (etxe batena, ontzi batena...), batzuetan ereduaren forma orokorra edo elementu batzuen itxura gogoraraz dezakeena.
7. Zirriborroak. Subjektuak soilik zirriborro batzuk egingo ditu, non ereduaren zatirik ezin baitaiteke bereiz, ezta haren forma orokorra ere.

Testa prestatu zuen taldeak egindako ikerketen emaitzek eboluzio-prozesu bat erakusten dute: IV. tipoaren nagusitasuna agertzen da 5 urtetik 11 urtera arte; 12-14 urteetan III. eta II. ereduak gailentzen dira, eta I. tipoa 15 urtetik aurrera. Hona hemen nola mailakatu zituen P.A. Osterrieth-ek kopiatze moduak.

- 1) VI. eta VII. tipoak. *Zirriborroak* eta *Irudia irudi ezagun batera ekartzea* erreakzioak 5 urterekin agertzen dira, baina betiere oso bakanetan, eta 6 urterekin desagertzen dira. VI. motan sartutako subjektuak biribiletik marrazten hasi ohi dira aurpegia, eta, hurrena, gorputz bat marrazten dute, ereduaren gainerako elementuak alde batera utzita.
- 2) V. tipoa. *Fondo nahasi bateko xehetasunak*: 5, 6 eta 7 urteko adin taldeetan agertzen da, baina maiztasun txikia dauka, eta 8 urteko taldean desagertzen da.

- 3) IV. tipoa. 5 eta 11 urteko umeen taldeetan gailentzen da. 5 eta 7 urteko taldeetan maiztasun handia dauka. Gailurra 8 urteetan (% 91) agertzen da; gero, erregulariki jaisten da, helduaroan minimoa lortu arte.
- 4) III. tipoa. Jokabide hau garapenaren aro osoan gertatzen da “estrategia osagarri” gisa; 8 urtekoen taldean izan ezik, non maiztasun oso txikia baita. 14 urte arte nahiko uniformeki ageri da, helduen artean ia sumaezina izan arte.
- 5) II. tipoa. Tipo hau ez da inoiz gailentzen, eta, III. tipoa bezala, “estrategia osagarri”tzat hartua izan daiteke. 8 urte arte proportzio txikian agertzen da, eta gero maiztasuna handituz doa nahiko era erregular batean, helduarora arte.
- 6) I. tipoa. Helduaren erreakzio bereizgarria da. Talde honetan maiztasun handiena lortzen du (% 68), eta, gainera, gailentzen den bakarra da. Erreakzio hau 8 urtekoen taldean agertzen da, maila apalean hurrengo adin taldeetan agertzen da, eta gailurra 15 urteetatik aurrera iristen da.

Hauxe da I. eta II. tipoen arteko desberdintasun bakarra: II. tipoan subjektua lauki zuzenaren ondoko xehetasun batetik hasten da, eta gero erdiko laukira pasatzen da, I. tipoan bezala, bere marrazkiaren oinarritzko gorputza eraikitzeke. Beraz, bi erreakzio hauek oso gertu daude bata bestearikiko.

Kopiatze-prozesua ikertzea oso interesgarria den arren, lanaren zehaztasuna eta perfekzio-maila ahaztu ezin daitezkeen aldagaiak dira. Zuzentasunez ebaluatu ahal izateko beharrezkoa litzateke kopiatutako elementuen kopurua kontuan hartzea, eta haien arteko erlazioak. P.A. Osterrieth-ek irudia 18 partetan zatitu du, eta honako balioespen hau ezarri du:

**Zati egokia:** ondo kokatua, 2 puntu; gaizki kokatua, 1 puntu.

**Zati deformatua, edo osatugabea, baina identifikatzen dena:**

ondo kokatua, 1 puntu; gaizki kokatua, puntu erdia.

**Zati identifikaezina, edo falta dena:** 0 puntu.

#### 4. Oroimenezko gauzatzearen baremazioa

Erreproduzio-fasearen emaitzak ebaluatzeko (kopiatzearen ondoren) probaren lehenengo faseko aldagai berdinak hartuko dira kontuan: eraiketa mota; erreprodukzioaren zehaztasuna eta aberastasuna, eta lanaren azkartasuna.

Kopiatzeko eta erreprodukzioko moduak alderaturik, ikusten da 6. urtetik aurrera subjektuen erdiek elaborazio-prozesu berdina erabiltzen duela; proportzio hori adinarekin batera handitzen da. Helduen kasuan % 73ra iristen da. Hala ere, ez da ahaztu behar helduetan kopiatze-estilo garatuenak aurkitzen direla, eta tipo horiek oroimenezko gauzatzean mantentzeko joera dutela.

Oroimenezko gauzatzean, kopiatze-tipoaren erregresioak ume txikietan ikusten dira, 7 urte arte bereziki. Eredu orokor baten faltan, oroimenaz soilik zuzendurik, elaborazio irrazional eta korapilatsu baterako joera erakusten dute.

Eskuliburuan agertzen diren baremoen erabilerak aukera ematen digu subjektua bere oroimen-gaitasunen arabera sailkatzeko. Oroimenaren gauzatzean erabilitako denborak ez du ia interes praktikorik azaltzen; batzuek lana luzatu egiten dute; beste batzuek beren oroimena segituan ematen dute bukatutzat.

#### 4. Emaizten analisia

Koadro honetan agertzen dira kopiatze-faseari eta buruz gauzatzeko faseari dagozkien emaitzen analisiak.

KOPIATZE-PROZESUA	
KOPIATZE-PROZESUA MAILA APALEKOA DA	KOPIATZE-PROZESUA MAILA HANDIKOA DA
<p>a) Erreprodukzioa <b>akastuna</b> da.</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>Oro har, kopiatze-denbora luzea da: segur aski, ikuspuntu intelektual batetik subjektuaren garapen urria adierazten du. Eraikuntza grafikoan, dispraxia, ikusmen-pertzepzio desorientatua, sinkretismoa eta zailtasunak ikusmen-espazioaren analisisan. Ume txikietan zailtasun hauek arruntak dira. Kontuan hartuko ditugu subjektuaren inguru kulturala, eskola-maila, eta hezkuntza-zentroak eta familiak marrazki-hezkuntzari eman dioten garrantzia.</li> <li>Kopiatze-denbora oso motza denean, analisisako gaitasun eza aurrekoan baino nabariagoa da; denbora oso murrizta denean, subjektuak elementu erraz bat edo zirriborro azkar bat (nahikotzat hartzen duena) kopiatu duelako izaten da.</li> </ul>	<p>a) Kopiatzea zehatza eta aberatsa da; denbora normalean gauzatzen da, edo luze samarra da batzuetan: subjektua, aplikatua eta zehatza, ikusmen-espazioko datuak arrazionalki egituratzen ditu.</p>
<p>b) Nahiz eta kopiatze-prozesua argi eta garbi maila apalekoa izan, subjektuaren adina kontuan izanda, kopiatzea <b>zehatza eta aberatsa</b> da:</p>	<p>b) Kopiatzeak zehaztasun gutxi dauka; elementuak ahazten ditu; askotan gauzatzeko denbora motza izaten da: proba serio ez hartzeko joera bat antzeman daiteke, edo batzuetan grafikoki jarduteko gaitasun eza, nahiz eta pertzepzio-eratzeko orokorra garatua egon.</p>
<ul style="list-style-type: none"> <li>Kopiatze-denbora luzea, oso luzea batzuetan; subjektuak kontu handiz jarduten du, aplikatua da, zailtasunak ditu euztura espazialak bizkor eta arrazionalki aztertzeko.</li> <li>Kopiatze-denbora motza, trazaketa erraza eta tinkoa: marrazketarako erraztasuna duten zenbait subjektuk irudia arrazionaltasun gutxirekin kopiatzen dute, baina ziurtasunez eta poliki-poliki aurreratuz joaten dira. Ikusitako errealitatea modu berezi batean aztertzen dute, eta irudia oso ongi kopiatzen dute.</li> </ul>	

## **B IRUDIA. Azterketa-teknika**

Irudi hau ume txikiena da; errazagoa eta azkarragoa da. Kopiaren puntuazioak eraikuntza egiteko buruko eskemak ebaluatzen ditu: globalizazioa, errealismo intelektuala, erlazioen azterketa falta, eta abar.

B irudia helduekin erabil daiteke, buruko gabezia sakona dagoela sumatzen denean. Proba horren baremazioa, dena dela, 4 urtetik 8 urtera bitartekoentzat egina dago.

### 1. Aplikazioa

Umeari B irudia erakusten zaio, karratua behera begira dagoela, eta eskuinean paper zuri bat ezartzen zaio, irudia kopiatu dezan. Bukatzen duenean denbora apuntatzen da, eta biak (kopia eta irudia) kentzen zaizkio. Hiru minutuko atsedenaren ondoren, berriz irudia beste orri baten egin dezala eskatuko zaio.

### 2. Zuzenketa eta ebaluazioa

Kopia eta buruz egindako erreprodukzioa banaturik zuzentzen dira.

Marrazkian dauden elementuen kopurua, gainazal nagusien tamainaren proportzioa eta gainazal nagusien eta bigarren mailako elementuen posizioak dira balioespina egiteko kontuan hartzen diren irizpideak. Irizpide horiek eskuliburuan ongi esplikaturik daude, adibidean ikus dezakegun bezala.

## B irudiaren kopiaren atal bat ebaluatzeko jarraitu beharreko irizpideak

### *1. Marrazkian dagoen elementu kopurua: bakoitzeko puntu bat*

Elementuak dira:

- zirkulua
- karratua
- hirukia
- lauki zuzena
- zirkuluaren barnean bi puntu
- hirukiaren barneko gurutzea
- zirkuluerdia lauki zuzenaren barnean
- lerro perpendikularrak zirkuluerdiaren barnean (2 edo gehiago)
- karratuaren diagonalak
- karratu barneko puntua
- = zeinua (berdin)

### *Zera ematen da:*

$\frac{1}{2}$  puntu, elementua kostata ezberdintzen bada

$\frac{1}{2}$  puntu, gurutzea superfizie bat bezala bada (eta ez marra sinple baten moduan)

$\frac{1}{2}$  puntu, bi puntuak biribilak badira

B irudian lor daitekeen gehienezko puntuazioa 31 puntukoa da.

## **ARRETAREN EBALUAZIOA**

Zeinuak ezabatzeko lanak dira arreta ebaluatzeko modu klasiko bat.

Toulouse-Pieron ezabatze-test zaharrena da (1904). Horren antzeko beste test batzuk osatu dira; adibidez, Zazzo-ren ezabatze bikoitzarena (1948-1971). Test horietan, subjektuek lauki txiki batzuk, alde batera zein bestera marra batzuk dituztenak, ezabatu behar dituzte.

Probak neurtzen ditu arreta, bereizkuntza, hautemate-azkartasuna, lan-erritmoa, nekearen aurkako erresistentzia, lanaren aurreko jarrera, egonkortasuna eta zehaztasuna.

## **HIZKUNTZAREN EBALUAZIOA**

Hizkuntza aztertzeko, modu eta proba anitz aurki ditzakegu. Horregatik, komenigarria da hautapen bat egitea. Atal honetan, hizkuntzaren garapena eta irizpide psikopatologikoen analisisa aurkezten dira.

1970eko hamarkadara arte, hizkuntzaren ebaluazioaren parametro klasikoak hauek izan dira: edukiaren analisisa (semantika, esanahia) eta hizkuntza-forma (fonologia, morfologia eta sintaxia). Hamarkada horretatik aurrera, hizkuntzaren analisiak funtzio sozial eta pragmatikoa lehenetsi zuen. Egun, hizkuntzaren analisisa edukia, forma eta erabilera aintzat hartzen saiatzen da.

Edukiaren analisiak eraikitako mezuen esanahiari edo errepresentazioari egiten dio erreferentzia. Zeinu linguistikoaz edo hitzen bidezko ideien kodifikazioaz ari da (semantika). Bloom-en eta Lahey-ren ustetan (1978), hizkuntzaren edukia da subjektuek errealitatean dauden objektuei buruz ezagutzen dutenaren errepresentazio bat. Chomskyk

hasitako eztabaidak (1957), sintaxiaren eta semantikaren arteko berezitasunari buruzkoak, ekarri zuen semantikaren edukiaren barruko bi ikuspegi bereiztea: alde batetik, *harreman semantikoaren eremua*, eta, beste aldetik, *lexikoa*. Geroago, Stevenson-ek (1993) uste du ezagutza semantikoaren azpian bi motatako gaitasunak daudela:

- a) esaldien arteko harremanak finkatzea;
- b) errealitatearen eta hizkuntzaren arteko harremanak finkatzea.

Ume baten hizkuntzaren esanahia hainbat eginkizun kontuan izanda aztertzen da: objektuen izendapena, kontzeptuen definizioa, harremanen adierazpena, hainbat klaseren hedapena, sinonimoen bilaketa, eta abar.

Hizkuntzaren formaren ebaluazioan hiru kategoria ageri dira: morfologia, sintaxia eta fonologia.

**Morfologiak** esanahiaren unitateak ikertzen ditu; soinuen konexio moduak aztertzen; eta haien konbinazioen arteko arauak eta hitzen esanahiaren arteko harremanak barneratzen ditu. Ume baten morfologiaren ulermena aztertzea bakarrik da posiblea, horrek *corpus* adierazkor nahikoa badu. Hau da, bi hitz baino gehiagoko esaldi bat egin badezake.

Morfologiaren analisiaren helburua da zuzen edo oker erabiliak izan daitezkeen hitz formak identifikatzea. Eta horietan agertzen diren faltak, salbuespenak edo ahuleziak hauteman behar dira. Analisisirako tekniken artean, ezagunena, hitzen arteko erlazioari buruzko arauen eraketa da. Subjektuentzat esanahirik ez duten esaldien bidez aurkezten da. Hala ere, askotan, forma morfologikoa eta sintaktikoa bereiztea zaila izaten da hizkuntzaren probetan. Hori dela eta, arau morfosintaktikoen ebaluazioa batera egin ohi da.

**Sintaxia** esaldietan hitzen ordenaren antolaketaz arduratzen da (esaldiaren egituraz). Hitzen arteko erlazio lineal edo hierarkikoa, kategorien koordinazioa, esaldien jarraipena... ikertzen ditu. Sintaxiaren ebaluazioa identifikatzen saiatzen da hizkuntzaren egituran propioak diren antolamendu sistemen erabileran ager daitezkeen hutsak, desegokitasunak, edo irregulartasunak. Umeen kasuan, analisi horren funtsa izango da egitura sintaktikoen jabeakuntzaren ordena.

Hizkuntzaren probetan gehien aztertzen diren alderdi sintaktikoak esaldiaren barneko egiturak dira (esaldi sinpleak edo konposatuak; justaposizioak, menpekoak edo koordinatuak, esaterako).

**Fonologiak** soinuaren eraketaz eta horien konbinazioen arauaz dihardu. Hizkuntza batean kontraste esanguratsuak adierazteko soinuek nola funtzionatzen duten ikertzen du. Bi maila bereiz daitezke:

- a) *Maila segmentala*. Fonemen, silaben eta ahozko kateen identifikazio, bereizkuntza eta artikulazioa barneratzen ditu. Alderdi fonologiko hori aztertzen duten probek kontraste fonikoen ezberdintasun pertzepziozkoaren analisia barneratzen dute, besteak beste.
- b) *Maila suprasegmentala*. Segmentu unitarioetan (fonemetan) deskribatu ezin diren baina esaldi baten indarra mantentzen duten soinu-efektuak (intonazioa, erritmoa...) aztertzen ditu. Gaitasun horiek oso garrantzitsuak dira komunikazioan. Izan ere, esanahiaren ezberdintasuna hautematen laguntzen dute; hizlariaren aldartea islatzen dute; komunikazio-asmoa zehazten dute, eta komunikazioan esaldiaren zer partek duen garrantzi gehiago erakusten dute.

Hizkuntzaren edukiaren eta formaren ebaluazioa bere prozesuen bidez ere egiten da. Harrera-prozesuak (entzumenezkoak eta ikusmenezkoak) eta ekoizpen-prozesuak (ahozkoak eta idatziak) bereizten dira. Alderdi horiek idatzizko ulermenaren, ahozko ulermenaren eta ahozko eta idatzizko adierazpenaren azterketaren baliokideak dira. Hainbat autorek lexikoa ere sartzen dute ebaluazioan. Aldagai estilistikoa ere kontuan hartzen da. Ikuspuntu sozial eta poliglota batetik, analisia aberasten da, hizkuntza bat baino gehiago hitz egiten dituen subjektuaren testuinguru guztiak aintzat hartuz.

Hona hemen, prozesu eta parametro linguistikoen matrize-analisia. Ikuspegi bakoitzean, aztertutako hizkuntza-gaitasunak agertzen dira.

**Prozesu eta parametro linguistikoaren matrize-analisia. Ikuspegi bakoitzean aztertutako gaitasun linguistikoak.**

<b>Oinarrizko parametroak</b>					
	<b>Semantika (Lexikoa)</b>	<b>Sintaxia</b>	<b>Morfología</b>	<b>Fonologia</b>	<b>Estiloa</b>
Ahozko harrera	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Hizkuntzaren terminoen esanahien ulermena (izenena, aditzena)</li> <li>- Hizkuntzaren esapide eta esamolde zehatzen ulermena (atsotitzak)</li> <li>- Testu baten elementuez oroitzea</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Hainbat egituratako esaldien ulermena: (bakunena, konposatuena...)</li> <li>- Esaldia osatzen duten elementuen bereizketa</li> <li>- Denetariko konplexutasuna duten kontaketa-egituren ulermena</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Hizkuntzako terminoen arteko harremanaren ulermena (zenbakiena, aditz-denborarena....)</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Fonemen identifikazioa</li> <li>- Fonemen arteko aldea hautematea</li> <li>- Intonazioaren araberrako esaldien bereizketa</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Komunikaziorako harreman motak: hartzailearekiko begiradaren norabidea, keinuak...</li> </ul>
Idazmen-harrera	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Ahozko harreraren aipaturako elementu beren ulermena, baina kasu honetan idatzian</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Ahozko harreraren aipaturako elementu beren ulermena, baina kasu honetan idatzian</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Ahozko harreraren aipaturako elementu beren ulermena, baina, kasu honetan idatzian</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Grafemen identifikazioa eta bereizketa.</li> <li>- Grafema bakoitzari dagokion adierazpen fonemikoa ematea</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Informazio-iturri gisa material idatzia erabiltzeko moldeak</li> </ul>

	<b>Semantika (Lexikoa)</b>	<b>Sintaxia</b>	<b>Morfología</b>	<b>Fonologia</b>	<b>Estiloa</b>
Ahozko ekoizpena	- Ahozko adierazpen egokia: aberastasuna, egokitasuna, arintasuna...	- Hizkuntzaren egitura morfosintaktikoa errespetatzea mintzatzean: hitzen ordena, generoa, zenbakia - Hedapena: ekoizpen linguistikoen batez besteko luzapena - Gertakariak denboran kateatzea		- Aparatu buko fonatorioaren azterketa - Ahoskera - Intonazioa - Diskurtoaren doinua	- Leloen erabilera - Geldiune zehatzen presentzia edo falta - Intonazioa - Adierazpenaren ordena
Idazmen-ekoizpena	- Idatzian, hitzak egoki erabiltzea - Komunikazioan edukia egoki hautatzea eta planifikatzea	- Hizkuntzaren egitura morfosintaktikoa errespetatuz, idatzizko adierazpena: hitzen ordena, generoa, ... - Arau ortografikoen erabilera		- Grafia: letraren tamaina eta mota, presioa...	- Esaldien luzera - Esaldien egitura - Irudi estilistikoaren erabilera - Ideien antolamendua

Forns eta Amador (1995) lanetik egokitua

**Pragmatikari**, edo hizkuntzaren erabileraren azterketari, garrantzi handia ematen hasi zitzaion 1970eko hamarkadatik aurrera. Horrek testuinguruaren eraginaren aitortza zuen. Ikuspuntu horretatik, hizkuntzaren ebaluazioaren helburuek lehenetsi zituzten esaldien esanahiek testuinguruaren arabera hartzen dituzten bariazioak. Igorlearen eta hartzailearen artean gertatzen diren komunikazio-trukeen harremana aztertzen du ikuspegi berri horrek.

Ikerketa anitz egin izan dira horren inguruan; azpimarratzekoak honako hauek dira:

- a) Ahozko komunikazioa finkatu aurreko begi-harremanean, irribarrean eta zizakaduran oinarritutako komunikazio-gaitasunaren azterketa. Hizkuntzaren jabeakuntza-prozesuei buruzko datuen ekarpena ahalbidetzen du. Umeak, aro horretan, solaskidearen beharra dauka, komunikazio-trukeei esanahia eman diezaion. Horrek umeari ulertzen laguntzen dio inguruan dituen pertsonen bere ekintzei esanahia ematen diotela. Elkarrekin horrek ahalbidetzen ditu giza komunikazioaren funtzio sozialaren aurkikuntza eta komunikazio-arauen ikaskuntza.
- b) Mintzaira-ekintzetan oinarritutako hizkuntzaren ebaluazioa. Komunikazio-asmoak zein diren aurkitzen ahalbidetzen du.
- c) Ezagutza naturala eta bizitza arruntaren egokitasuna lehenetsitako ikuspuntua. Komunikazioan eraginkorra izateko beharrezkoak diren osagarri kognitibo eta sozialak ebaluatzen ditu. Esaterako, *zer den adierazi behar dena, zein den erabili behar den hizkuntza mota, hitz egin behar den unea...*

## Hizkuntzaren jabekuntzaren eboluzio-jarraibideen analisia

Haurren garapenaren hainbat ebaluazio-probak (Battelle-k, Bayley-k, Brunet-Lezine-k) hizkuntzaren jabekuntza aztertzen dute, garapenaren dimentsio zehatz bat balitz bezala. Behatutako ahozko ezaugarriak, bai adierazpena bai ulermena, lantzen dituzte.

Ahozko garapenaren jabekuntza hilabeteetan gertatzen da, eta subjektu guztiek ahozko gaitasuna izan arte irauten du. Tarte hori nahiko zabala denez, tarte horren goiko muga gertatzen bada jabekuntza, arrisku-balioa eman ohi zaio ahozko garapenari. Arrisku-balio horri *screening* deritzo. Hori dela eta, “hizkuntza-atzerapen”aren adierazle izan daiteke. Hala gertatuz gero, beharrezkoa da hizkuntzaren proba espezifiko bat egitea.

Adostasun handia dago zehaztean zein diren behatu behar diren portaerak ahozko garapenean ager daitezkeen arazoak hautemateko. Baina adostasuna ez da hain handia, hizkuntzaz jabetzeko tartearen zein den definitzerako orduan.

Oro har, uste izaten da arriskua dagoela haurrak 2 urte eta erdi dituenean hitzak objektuekin lotzen ez baditu, hitz arrunten esanahia ulertzen ez badu, 10 hitz ezagun baino gutxiago erabiltzen baditu eta bere beharrak adierazteko keinuekin bakarrik komunikatzen bada.

3 urtetan arrisku-adierazleak honako hauek izan daitezke: haurrak agindu sinpleak ulertzen ez baditu (hala nola, *etorri bazkaltzera, gorde ezazu panpina...*), hiru hitzetako esaldiak sortzen ez baditu, eta arau morfosintaktikoak errespetatzen ez baditu (adibidez, pertsona edo denbora).

4 urtetan ipuin baten narrazioari jarraitu ezin badio, arrisku-adierazletzat jotzen da haurrak bere esperientziak ez azaltzea, esaldiaren egitura desegokia izatea, eta oinarriko galderak ez egitea, besteak beste.

Kasu guzti horietan diagnostiko diferentzial bat egin beharko da, hizkuntzaren atzerapenaren, atzerapen kognitiboaren, entzumen-arazoan edo garapen-arazoan artean.

### **Hizkuntzaren eta mintzairaren garapena: irizpide psikopatologikoak**

Egun, psikopatologiaren inguruan dauden bi sistemak DSM IV eta CIE-10 dira. Bi sistema horien helburua da, buru-nahasteen definizioa emateko orduan, fidagarritasuna eta homogeneotasuna lortzea. Baina desberdintasun nabariak aurki ditzakegu DSM IVren eta CIE-10en artean.

CIE 10en (MOE, 1992) hizkuntzaren eta mintzairaren nahaste espezifikoak garapenaren nahasteen barruan sailkatzen dituzte. Nahaste horietan, hizkuntza eskuratzeko jarraibideak nahasirik agertzen dira estadio goiztiarretatik, nahaste neurologikorik, zentzumenezkorik eta adimen-atzerapenik egon barik. Hizkuntzaren nahasteen, 4 irizpide kontuan izateko dira:

- larritasun-maila
- eboluzioa
- mota
- arazo konkomitanteak

CIE 10k hizkuntzaren nahaste hauek bereizten ditu:

- *Ahoskatzearen nahaste espezifikoa*. Subjektuaren adinerako normalak diren fonemak ahoskatzeko zailtasunak daudenean. Nahaste honetan bereizten dira:

- artikulazioaren garapeneko nahasteak
- artikulazioaren nahaste funtzionalak
- lambdazismoa
- dislaliak
- garapen fonologikoko nahasteak

Diagnostikoak eskatzen du subjektuaren maila kognitiboa normala izatea, hizkuntzaren adierazpen-funtzioak normalak izatea eta artikulazioan agertzen diren zailtasunak zentzumenetako anomalien, anomalia neurologikoen edo inguru soziokulturalaren eraginagatik ez izatea.

- *Hizkuntzaren adierazpenaren nahastea.* Haurraren ahozko hizkuntzaren adierazteko gaitasuna txikiagoa da subjektuaren adinari dagokionaren aldean. Hizkuntzaren ulermenerako gaitasuna muga normalen barruan dago, eta gaitasun ez-berbalek eta ahoskerak ez dute zertan kalteturik agertu. Hizkuntza eskuratzeko prozesuaren hasieratik gertatu da hizkuntzaren defizit hau.

2 urteren inguruan, ez dira hitz sinpleak eskuratu, eta 3 urtetan oraindik ez dira bi hitz baino gehiagoko esaldiak osatzen. Aurrerago, lexikoa gaizki erabiliko da: hitz desagokiak, hitz-jario eskasa... Nahaste honek adierazpenaren garapenean afasia eta disfasia barneratzen ditu.

- *Hizkuntzaren ulermenaren nahastea.* Hizkuntzaren ulermena haurraren adinari dagokion baino apalagoa da. Urtebeteko umeak ez ditu hitz xumeak ulertzen; 18

hilabetetan objektu arrunten izenak ez ditu ezagutzen, eta 2 urtetan ez die eguneroko jarraibideei jarraitzen. Nahaste honen barruan bereiz daitezke:

- garapen harkorraren afasia edo disfasia
  - hitzezko gortasuna
  - entzumenezko agnosia jaiotzetikoa
  - Wernicke-ren afasia
- 
- *Epilepsiaren eraginez eskuratutako afasia (Landau-Kleffner sindromea).*  
Hizkuntzaren adierazpenaren eta ulermenaren gaitasunaren galera. Ondorioz, lehen hizkuntza egoki eskuratzen ari zen haurrak jargoi berezi batean hitz egiten du. Galera hori epilepsiarekin batera agertzen da, 3 urtetik 6 urtera bitartean.
  - *Hizkuntza eta mintzairaren beste nahaste batzuk: zezelketa eta zazeiua.*
  - *Zehaztasunik gabeko hizkuntza eta mintzairaren garapeneko nahasteak.* Mintzairaren garapenean gainbehera esanguratsua gertatzen da.

DSM IVk (APA, 1994) honako nahaste hauek azaltzen ditu:

- *Hizkuntza-adierazpeneko nahasteak.* Ahozko adierazpenean gutxiagotasun nabaria gertatzen da. Ezaugarriak: lexiko mugatua, aditz-denboraren erabileren akatsak, adinari dagozkion esaldi konplexuak formulatzeko zailtasunak, esaldi laburrak. Maiz, artikulazioaren garapeneko nahastearekin batera agertu da; kasu larrienak 3 urte baino lehenago azaltzen dira.
- *Hizkuntza-nahaste mistoak (adierazpenean eta ulermenean).* Adierazpenean eta ulermenean akatsak egiten dira. Kasu larrienetan, oinarritzko lexikoaren ulermenean zailtasunak ager daitezke. Oinarritzko ulermeneko defizita da aurreko nahastetik ezberdintzen duen ezaugarria.
- *Artikulazioaren garapeneko nahastea.* Ahozko hizkuntzan dauden soinuak modu egokiz artikulatzeko agertzen diren zailtasunak dira.
- *Toteltasuna.* Mintzairaren erritmoan eta hitz-jarioan gertatzen den nahastea.
- *Komunikazioan gertatzen den nahaste zehaztugabea.*

Ondorengo taulan, DSM IV eta CIE-10ek komunean dituzten irizpideen laburpena eskaintzen da.

**Mintzairaren eta hizkeraren nahasteak. DSM IV eta CIE-10ek komunean dituzten irizpideen laburpena**

<b>Ahoskerako nahasteak</b>	<b>Adierazpenaren nahasteak</b>	<b>Ulermenaren nahasteak</b>	<b>Epilepsiaren eraginez eskuratutako afasia</b>
<p>Atzerapena fonemak ahoskatzean:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Fonemak esateko zailtasunak</li> <li>- Fonemak konbinatzeko zailtasunak</li> <li>- Ordezkapena</li> <li>- Inkonsistentziak</li> <li>- Hutseginak</li> </ul>	<p>Adinari dagokion adierazpen-mailaren gutxitasuna:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Hitz sinpleak adierazteko ezintasuna</li> <li>- Esaldi sinpleak egiteko orduan huts egitea</li> <li>- Lexiko murriztua</li> <li>- Hitzak hautatzeko zailtasunak</li> <li>- Aditz-denbora desegokien erabilera; iraganeko gertakariak ordenatzeko ezintasuna</li> <li>- Hitz-jario falta</li> <li>- Egitura sintaktiko desegokia</li> </ul>	<p>Adinari dakion ulermen-mailaren gutxitasuna:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Izen ezagunei erantzuteko zailtasuna</li> <li>- Inguruneko izenak ezagutzeko ezintasuna</li> <li>- Arau sinpleei jarraitzeko ezintasuna</li> <li>- Forma gramatikalak ulertzeko ezintasuna</li> <li>- Ahotsaren tonua eta keinuak ulertzeko ezintasuna</li> </ul>	<p>Hizkeraren eta mintzairaren ulermenaren bat-bateko edo pixkanakako galera.</p>

## Mintzaira eta ahozko hizkuntza ebaluatzen probak

Asko dira mintzaira eta ahozko hizkuntza ebaluatzen dituzten probak. Horregatik, taula honetan, labur-labur, test esanguratsuenak azalduko dira.

Testa	Autoreak	Helburuak	Adina	Ebaluazio-maila	Dimentsioak
<b>ITPA</b> <i>Illinois Test of Psycholinguistic Abilities</i>	Kirk, McCarthy eta Kirk (1968)	Komunikazioaren mailen, kanalen eta prozesuen analisia	3-9	Adieraztea eta jasotzea	M, Si, Se, F
<b>PLON</b> <i>Prueba de lenguaje Oral de Navarra</i>	Aguinaga et al. (1989)	Ahozko portaeraren garapenaren ebaluazioa	4-6	Adieraztea eta jasotzea	F, M, Si, Se, P
<b>PPVT-R</b> <i>PEABODY Picture Vocabulary Test-Revised</i>	Dunn (1959), Dunn eta Dunn (1981)	Ezagutza semantikoaren analisia	2-41	Jasotzea	Se

M = morfologikoa; Si = sintaktikoa; Se = semantikoa; F = fonologia/grafismoa; P = pragmatika

### 1. Illinois-en (ITPA) gaitasun psikolinguistikoaren testa:

ITPA testa (Kirk, McCarthy eta Kirk, 1968; Kirk et al., 1980) sortu zen ikaskuntza-arazoak eta arazo kognitiboak zituzten haurren gaitasun eta zailtasun berbalak eta pertzeptiboak ebaluatzen tresna gisa. Autore horien helburua zen ebaluazioarekin harremana zuten banakako jarraibideak dituzten programen antolamendua bideratzea,

*Headstart* programa bezala. Horretarako, beharrezkoa zen diseinatzea azterketa bat, gaitasun komunikatiboen diagnostiko analitikoa egiteko eta eskola-ikaskuntzari eustea ahalbidetzen duten gaitasun berbalak bereizten laguntzeko.

Hiru dira hizkuntza eskuratzean eta erabiltzean gertatzen diren prozesu psikolinguistikoak.

- *Harrera-prozesua*. Ahozko edo entzumenezko estimuluen errekonozimenduan edo ulerpenean inplikaturik dauden mekanismo eta gaitasunak.
- *Adierazpen-prozesua*. Ahoz, keinuen edo mugimenduen bidez ideiak adierazteko beharrezkoak diren gaitasunak.
- *Asoziazio edo antolaketa prozesua*. Pertzepzio, kontzeptu eta sinbolo linguistikoen barneko manipulazioa barneratzen du. Horri esker, informazioa berregituratu egiten da, modu argi eta koherente batean igorria izateko.

ITPAk ebaluazioan aztertzen dituen komunikazio-kanalak ikusmenezko-motorra eta ahozko-entzumenezkoa dira.

Antolamendu-mailak gaitasun komunikatiboaren garapenaren graduei dagozkie. Bi gradu ezberdintzen dira: automatikoa eta errepresentaziozkoa. *Maila automatikoan*, funtzionamendu komunikatiboa oso antolatua dago, eta aktibitate kognitiboaren kontrol apala eskatzen du. Aldiz, *errepresentazio-mailan*, subjektuaren aktibitate kognitiboa altua da, eta, beraz, ulermen-, antolamendu- eta adierazpen-gaitasunak eskatzen ditu.

Hona hemen ITPA testean aurki ditzakegun kanalak, mailak eta prozesuak:

### **ITPA testa osatzen duten kanalak, mailak eta prozesuak**

Ahozko-entzumenezko kanala	Ikusmen-motrizitatezko kanala
----------------------------	-------------------------------

#### **ADIERAZPEN-MAILA**

Entzumen hartzailea Entzumenezko asoziazioa Ahozko adierazpena	Ikusmen hartzailea Ikusmenezko asoziazioa Adierazpen motorra
--	--

#### **MAILA AUTOMATIKOA**

Integrazio gramatikala Entzumenezko oroimena Entzumenezko integrazioa Soinuen osaketa	Ikusmen-integrazioa Ikusmen-oroimena
--	---

Hori dena ebaluatzeko hamar azpitest aurki daitezke ITPAn:

1. Entzumenezko ulermena
2. Entzumenezko asoziazioa
3. Hitz-jarioa
4. Entzumenezko integrazioa
5. Entzumenezko oroimen sekuentziala
6. Ikusmen-ulermena
7. Ikusmen-asoziazioa
8. Adierazpen motorra
9. Ikusmen-integrazioa
10. Oroimen ikusmenezko-motor sekuentziala

ITPA proba banakakoa da. Puntuazioa ongi emandako erantzun kopuruaren arabera da.

Erantzun-protokoloak proba pasatzea eta zuzentzea errazten du.

**Entzumenezko asoziazioaren adibidea (analogiak)**

Aita handia da

Umea \_\_\_\_\_

Arraiak uretan daude

Txoriak \_\_\_\_\_

## Entzumenezko integrazioaren adibidea

(hitzen osaketa)

Panpi\_\_

\_liza

Saga\_\_

### Abantailak eta desabantailak

Urte askotan proba hau erabiliena izan da hizkuntzaren ikuspegi guztiak ebaluatzeko. Gaur egun, diagnostikatzeko erabiltzen da, bereziki hezkuntzaren eta berreziketa logopedikoaren testuinguruetan. Izan ere, testaren perfila lagungarri da berreziketa-lehentasunak finkatzeko.

Bestalde, kritika ugari ere jaso ditu. Kritika funtsezkoena zera da: ITPA ez dela hizkuntza ebaluatzeko proba bat, zentzu hertsian, garapen kognitiboaren proba bat baizik.

### 2. PLON, Prueba de lenguaje Oral de Navarra.

Aguinaga, Armendáriz, Fraile, Olangua eta Uriz-ek sortu zuten, 1989. urtean.

Bloom eta laguntzaileen marko teorikoaren ikuspuntutik hizkuntzaren forma, edukia eta erabilera ebaluatzen ditu. Hizkuntzarekiko trebetasuna ebaluatzen du 4 urtetik 6 urtera bitarteko haurren. Puntuazio zuzenak zentiletan estandarizatzen dira. Gaztelaniaz egina eta barematua dago.

### 3. PPVT-R, PEABODY Picture Vocabulary Test-Revised

Dunn (1959), Dunn eta Dunn (1981)

**PPVT-R, *PEABODY Picture Vocabulary Test-Revised* edo *PEABODY* irudien  
bidezko hiztegiaren test berrikusia**

**Tresna:** PPVT-R, PEABODY Picture Vocabulary Test-Revised

**Egileak:** Dunn (1959), Dunn eta Dunn (1981)

**Aplikazio-adina:** 2 urte eta erditik 18 urtera bitarteko haur eta nerabeak

**Aplikazio-denbora:** 15 minutu, gutxi gora behera

**Ebaluazioaren helburua:**

**Formatua:** 150 lamina, bakoitzak aukeran 3 irudi dituela, eta beste 5 lamina adibide gisa.

**Ebaluazio modua:** Subjektuak aukeratu behar du irudi bat ebaluatzaileak emandako estimulu berbalaren ondorioz. Keinuka erantzun daiteke.

**Zuzenketa:** Ondo egindako itemek positibo puntuatzen dute, eta gaizki egindakoek negatibo (kendu egiten dute). Zuzenketa-orriak asko laguntzen du.

**Emaitzak:** puntuazio zuzenak *dezil*, *zentil* eta *estanino* bihurtzen dira.

**Ezaugarri psikometrikoak:** gaztelaniazko bertsioan (TEA etxeak argitaratua, 1989), fidagarritasuna (bi erdien metodoarekin) 0,92 da.

## IKASTEKO OHITUREN EBALUAZIOA

Ikasteko ohituren ebaluazioa F.F. Pozar-ek sortu zuen, 1989an. Hiru helburu dauzka tresna horrek: ikasleen ikasteko ohiturak nolakoak diren jakitea, ikasketa-ohiturek ikasprozesuan izango duten eragina aurreikustea, eta egokiak ez diren ohituretan nola esku hartu planifikatzea eta egitea.

Euskarara egokitu zen, Juan Etxeberriaren zuzendaritzapean, 1993. urtean.

### IHE, IKASTEKO OHITUREN EBALUAZIOA

**Izena:** Ikasketako Ohituren Inbentarioa (IHE).

**Egilea:** F.F. Pozar.

**Tipifikazioa:** F.F. Pozar eta TEA Ediciones S.A.

**Administrazioa:** bakarka edo taldeka.

**Aplikazioa:** 13 urtetik aurrera.

**Tipifikazioa:** eskolako laginak.

#### Testaren deskripzioa:

Ikasleen lan egiteko eta ikasteko ohituren ebaluazioa (IHE) 90 elementuz osatuta dago, eta honako banaketa hau dauka:

- Ikasketa-giroaren baldintzak → 18 elementu
  - 1. Giro-baldintza pertsonalak

- 2. Giro-baldintza fisikoak
- 3. Jokabide akademikoa
- 4. Errendimendua
  
- Ikaskuntzaren planifikazioa → 12 elementu
  - 5. Ordutegiak
  - 6. Antolaketa
  
- Materialen erabilera → 15 elementu
  - 7. Liburuen erabilera
  - 8. Irakurketa
  - 9. Azpimarraketa-laburpenak
  
- Edukien asimilazioa → 15 elementu
  - 10. Memorizazioa
  - 11. Pertsonalizazioa
  
- Zintzotasuna (eskala gehigarria) → 30 elementu

### **IHE testaren adibideak**

1. Gustatuko al litzaizuke erabat zure gogoko leku bat edukitzea ikasteko?
9. Ba al dakizu zure liburuan edozein gai azkar aurkitzen aurkibidera joz?
17. Ba al duzu konfiantzarik zeure oroimenean?
24. Egin al duzu zeure ikasketen ordutegia?
30. Gustatuko al litzaizuke zure irakasleek hobeto tratatuko bazintuzte?